

LAGUNIK ONENA

Bi EMAKUME. Biak sakelekoa belarrian agertuko dira itxaron-gelan. Libre dagoen aulki parean esertzeko asmoa biek. Biek aulki bera joko dute begiz. Keinuz eskeiniko diote batak besteari.

Elkarren parean eseriko dira. Eserita, bakoitza berera, apenas hitzik egin gabe, baina telefonoz belarrira norbait ari zaiela antzemateko moduan.

Beste sakeleko bat joka.

EMAKUME 1 bila hasiko da, belarrian duen sakelekoa apartatu gabe, eta bestaldeko bakarriketa jarraituz. Bolso barruko guztia hustuko du mahai gainera. Beste hiru mobil aterako dira handik. Banan-bana begiratuko ditu joka ari dena zein den asmatu nahian. Baina mobil batek joka jarraitzen du.

Bitartean EMAKUME 2k bigarren mobila atera du poltsikotik, (hura da deika ari dena), begiratu, muturra okertu (ez zaio gustatu nor ari den deika), itzali eta gorde egingo du.

EMAKUME 1ek kortesiazko irribarre txiki bat egingo dio.

EMAKUME 2k beste batekin erantzun.

EMAKUME 1 (sakelekoa pixka bat apartatuz, konplizitatez, EMAKUME 2ri)

Beti momentu desegokian, e?

EMAKUME 2k baietz, buruarekin.

EMAKUME 1ek mahaira ateratako mobilak bolsoan sartuko ditu. Bat izan ezik. Harekin duda

egingo du, baina azkenean bistan uztea erabakiko du. Eta telefonoz hizketan jarraituko du.

EMAKUME 1-

Ez, ez. Ez zen nerea.

EMAKUME 2-

Nerea zen. Bestea, bai.

EMAKUME 1-

Badakizu nerea balitz erantzun egingo nuela.

EMAKUME 2-

Igual dio. Ez zen garrantzitsua.

EMAKUME 1-

Nik ez dut inor erantzunik gabe uzten. Inoiz ez.

EMAKUME 2-

Zurekin ari naiz orain.

EMAKUME 1-

Sekula ez dakizu norbaitek beharko ote zaituzten.

EMAKUME 2-

Laneko konturen bat...

EMAKUME 1-

Eta behar izan ezkerro...

EMAKUME 2- (moskeatzen hasita)

Erantzungo dut hurrengoan.

EMAKUME 1- (justifikatu nahian)

Ez nuen hori esan behar, ezta?

EMAKUME 2-

Ez zu urduri jarri, behintzat, nik erantzun gabeko dei batengatik!

EMAKUME 1-

Eskerrik asko.

Berriro telefono deia.

EMAKUME 1ek urduri hartuko du mahai gainekoa.
Ez da joka ari. Lasaitu egingo da.

EMAKUME 2k berriro aterako du poltsikotik.

EMAKUME 2-

Berriz ere lanetik. (...) Ez horrela jarri.
Erantzungo dut. Zuk ez moztu.

EMAKUME 1-

Eskerrik asko entzuteagatik. Pazientzia handia daukazu nirekin.

EMAKUME 2k beste telefona erantzungo du.

EMAKUME 2- (zakar)

Zer?

EMAKUME 1-

Beti kontu berarekin...

EMAKUME 2-

Ez. Ez nago etxean. Zer ba?

EMAKUME 1-

Arrazoi duzu. Ahaztu egin beharko nuke.

EMAKUME 2-

Zuzenduko dut gauean.

EMAKUME 1-

Baina ikusi egiten dut, ulertzen?

EMAKUME 2-

Esango dizut gero.

EMAKUME 1-

Ikusi egiten dut... erortzen.

EMAKUME 2-

Orain ezin dut.

EMAKUME 1-

Ez, ez naiz berriro hasiko. Ez zait komeni, ez.

EMAKUME 2-

Telefonoz ari nintzen!

EMAKUME 1-

Baina ikusi egiten dut, hantxe, espaloian, lehertuta.

EMAKUME 2-

Beste telefonotik, jakina.

EMAKUME 1-

Eta telefonoa...

EMAKUME 2-

Galdetu al dizut nik zuri zenbat telefono dauzkazun?

EMAKUME 1-

... joka.

EMAKUME 2-

Zer esaten ari zara?

EMAKUME 1-

Ez moztu, mesedez.

EMAKUME 2-

Aio.

EMAKUME 2k telefono deia moztu eta gorde egingo du sakelakoa.

EMAKUME 1-

Mesedez...

EMAKUME 2k lehendabiziko telefinoa hartuko du berriro.

EMAKUME 2-

Zer? Lasaiago horrela? Erantzun dut. Hor al zaude? (...) Ama?

EMAKUME 2k amorrazioz begiratuko dio telefonoari.

EMAKUME 1ek, penaz.

Elkarri begiratuko diote gero.

EMAKUME 1-

Ez dago.

EMAKUME 2-

Zer?

EMAKUME 1-

Moztu egin dizula.

EMAKUME 2-

Pake ederra!

EMAKUME 1-

Niri ere moztu egin dit. Ze grazia, ezta?

EMAKUME 2-

Zertan dago grazia?

EMAKUME 1-

Ez dakit. Moztu izana. Bioi aldi berean.

EMAKUME 2-

Telefono aluok...

EMAKUME 1-

Zuk ere bi dauzkazu. Telefonoak. Bi, gutxienez.
Grazia egin dit.

EMAKUME 2-

Ez duzu asko behar zerbaitek grazia egiteko.

EMAKUME 1-

Hitz egiteko modu bat da.

EMAKUME 2-

Ba, niri ez dit graziarik egiten bi eraman beharrak.

EMAKUME 1-

Nik ere lehen bi besterik ez nituen. Baina orain...

EMAKUME 2-

Jakingo duzu telefono bat, bi edo ehun edukitzeak ez duela ezer aldatuko, ezta?

EMAKUME 1-

Aldatu... zer?

EMAKUME 2-

Edozer dela ere. Espero duzun deia ez da iritsiko.

EMAKUME 1- (kezkatuta)

Nola dakizu?

EMAKUME 2-

Esan nahi dizut dei hori ez dela errazago iritsiko telefono gehiago edukiagatik...

EMAKUME 1-

Hori badakit, jakina. Baina, badakit, iristen denean ez duela telefona okupatua harrapatuko ere.

EMAKUME 2-

A. Ezagutzen dut istorio hori.

EMAKUME 1-

Egitan?

EMAKUME 2-

Bai. Zoritxarrez.

EMAKUME 1-

Eta? Izan zenuen laguntzeko modurik?

EMAKUME 2-

Lagundu? Saiatzen naiz. Ez alferrik!

EMAKUME 1-

Salto egiten du, ezta?

EMAKUME 2- (harrituta)

Salto?

EMAKUME 1-

Balkoitik.

EMAKUME 2- (harrituago)

Ze balkoi?

EMAKUME 2k eskuetan duen telefonoak joko du.

EMAKUME 1-

Beti egiten du salto.

EMAKUME 2- (haserre)

Ama! Moztu egin didazu! Esan dizut ba ez mozteko!

EMAKUME 1-

Beti egiten du salto balkoitik.

EMAKUME 2-

Ama! Ezin didazu telefonoa moztu beste bakarren batek deitu dezakeelakoan...

EMAKUME 1-

Eta beti geratzen da telefonoa joka. Ezerezari joka.

EMAKUME 2-

Ez kezkatu horregatik. Tarifa plana daukat.

EMAKUME 1- (bere historian gero eta barneratuago)

Nik entzun egiten dut. Han, nonbait. Jo eta jo.

EMAKUME 2-

Ez daukazu ulertu beharrik. Zu ez preokupatu horrekin. Esaten badizut ez mozteko, ez moztu. Eta kitto.

EMAKUME 1-

Inork ez du erantzuten.

EMAKUME 2-

Ama, mesedez! Ez, ez dizut tarte honetan berriz deitu.

EMAKUME 1-

Eta zuk ezin duzu ezer egin.

EMAKUME 2-

Esango nizun, hala izan balitz! Baina ez dut nik deitu! Beste norbait izango zen.

EMAKUME 1-

Lagundu nahiko zenioke...

EMAKUME 2-

Ba, ez dakit nor izango zen! Nola nahi duzu nik jakitea?

EMAKUME 1-

Baina ez dakizu nola.

EMAKUME 2-

Zenbakiz nahastu den bakarren bat, seguro!

EMAKUME 1-

Eta esaten diozu: ez moztu... lasai.

EMAKUME 2-

Halaxe gertatzen dira kasualidadeak. Eta jendea nahastu egiten da zenbakiz. Egunero.

EMAKUME 1-

Ez moztu...

EMAKUME 2-

Berriz kontu horrekin hasi behar baduzu moztu egingo dizut.

EMAKUME 1-

Ni hemen nago. Lasai.

EMAKUME 2-

Ez, ama. Ez kezkatu. Garrantzitsua baldin bada, deituko dizu berriro.

EMAKUME 1-

Nor zara?

EMAKUME 2-

Ba, moztu. Horrek lasaitzen bazaitu...

EMAKUME 1-

Nire lagunik onena?

EMAKUME 2-

Ama: Telefonoa kendu egin beharko dizut azkenean, preokupaziotarako beste ezertara ez bada, entzun?

EMAKUME 1-

Nire lagunik onena?

EMAKUME 2-

Eta ez geratu telefonoaren alboan lorik egin gabe, deiaren zain, aurrekoan bezala!

EMAKUME 1-

Hitzegidazu... ez isildu...

EMAKUME 2- (bere burua kontrolatu nahian)

Ama, utzi egin behar zaitut. Deituko dizut gauean. Eta lasaitu pixka bat.

EMAKUME 1 negarrez ari da, mahai gaineko telefonoa eskuetan hartuta.

EMAKUME 2-

Aizu, ondo al zaude?

EMAKUME 1-

Bai, ez da ezer.

EMAKUME 2-

Iruditu zait...

EMAKUME 1- (moztuz)

Horrela hitz eginda ez duzu lasaituko...
'Lasaitu pixka bat' esanda ez duzu lasaituko.

EMAKUME 2-

Baina nor zarela uste...

Telefonoak moztuko dio esaldia.

EMAKUME 2, berearen pantallan hasiko da mezuei begira.

Bolsokoak aterako ditu berriro EMAKUME 1ek.
Joka ari dena erantzungo du.

EMAKUME 1- (EMAKUME 2ri barkamen eske)

Barkatu... dei hau erantzun beharra daukat.

EMAKUME 2-

Ez, ez... bai, segi.

EMAKUME 1-

Bai. Bai. Nik, bai. Nik deitu dut. (...) Ez, zera, nobedaderik edo ba ote den. Badakizu... (...) Bai, bai. Ulertzen dut. (...) Bai. Eskerrik asko.

EMAKUME 2- (pixka bat errukituta)

Ez zen espero zenuen deia.

EMAKUME 1-

Ez. Beno, bai.

EMAKUME 2-

Ez da nere kontua, nolanahi ere...

EMAKUME 1-

Eskertzen dizut interesa.

EMAKUME 2-

Ez da interesa. Kuriosidadea da.

EMAKUME 1-

Eskertzen dizut kuriosidadea.

EMAKUME 2ri laneko telefonoak joko dio berriro.
Gogo txarrez erantzungo du.

EMAKUME 2- Esan dizut gauean zuzenduko dudala!
Eta nik dakidala oraindik ez da gaua, edo hor
ilundu du?! (...) A, ondo da. Bai. Ez, ez. (...)
Baina zer galdera klase da hori? Nik galdetu al
dizut zuri non zauden?

EMAKUME 2k keinu lehorrez itzaliko du tfnoa.
Eta lehendabizikoarekin hasiko da mezu
bidalketan.

EMAKUME 2-

Zer mania! Non nagoen galdetu behar hori!

EMAKUME 1-

Garrantzitsua da batzuetan.

EMAKUME 2 jiratu egingo da pixka bat. Nabarmena
da ez duela EMAKUME 1 entzun nahi.

Telefonoz deituko du.

EMAKUME 2-

Ni. Dena ondo? Oraindik zain. (...) Berandutu
egingo naiz pixka bat.

EMAKUME 1- lek ere telefonoa jarriko du belarri
parean. Inori deitu gabe, ordea. EMAKUME 2-ri
ari zaio hizketan.

EMAKUME 1-

Ulertuko du.

EMAKUME 2-

Nola non nagoen? Ez al duzu gogoratzen gaur ze
hitzordu dudan?

EMAKUME 1-

Ahaztu egingo zuen.

EMAKUME 2-

Frigoan utzi dizut ba oharra!

EMAKUME 1-

Begiratzeko astirik ez!

EMAKUME 2-

Waxapa ere idatzi dizut.

EMAKUME 1-

Pasa egingo zitzaien.

EMAKUME 2-

Kontatuko dizut gero.

EMAKUME 1-

Esna topatzen baldin baduzu!

EMAKUME 2-

A, egia. Igual dio. (...) Ba, kontatuko dizut bihar.

EMAKUME 1-

Akordatzen bazara...

EMAKUME 2-

Ondo da. Gero arte.

EMAKUME 2k telefonoa mahai gainean utziko du.

EMAKUME 1ek ere bai. EMAKUME 2ri begira geratuko da.

EMAKUME 2k berriro hartu eta mezu trukaketan hasiko da.

EMAKUME 1-

Lehendabiziko aldia?

EMAKUME 2-

Barkatu?

EMAKUME 1-

Hemen. Lehendabizikoz etorri al zaren hona.

EMAKUME 2-

Bai.

EMAKUME 1-

Maja da.

EMAKUME 2-

Hala esan didate.

EMAKUME 1-

Baina...

EMAKUME 2-

Baina?

EMAKUME 1-

Telefonoa etxean uzteko esango dizu.

EMAKUME 2-

Niri?

EMAKUME 1-

Zuri eta denoi: hori da bere lehenengo aholkua:
fuera telefonoa! Bestela ez zara sendatuko.

EMAKUME 2-

Ez, ez. Nik ez dut arazorik telefonoarekin.
Amarengatik etorri naiz.

EMAKUME 1-

Igual dio. 'Fuera' esango dizu. 'Fuera
telefonoa'.

EMAKUME 2-

Ba, ea espezialistak aginduta kaso egiten
duen... ze, niri ez dit aspaldian kasurik
egiten.

EMAKUME 1-

Soluzioa iruditzen al zaizu?

EMAKUME 2 begiak pantailatik kendu gabe.

EMAKUME 2-

Ez dakit. Baina ezin zara bizi telefonoak noiz joko, eta jotzen badu beldurtuta, eta jotzen ez badu beldurtuago. Eta erantzuteko beldurrez, eta erantzun ezean, beldurrez. Eta ezezagunen batek deitzen badu beldurtuta, eta nork deitu duen ez badakizu, berdin. Ezin bizi batean. Hala bizi da gure ama.

EMAKUME 1-

Bera etortzea hobe igual...

EMAKUME 2-

Lotuta, izatekotan! Ez du entzun ere egin nahi!

EMAKUME 1-

Nik ere ez hasieran. Gertatu zenean.

EMAKUME 2-

Zu ez zaitu izutzen telefonoak...

EMAKUME 1-

Dexente.

EMAKUME 2-

Ez zait hala iruditu.

EMAKUME 1-

Beldurrak eta beldurrak daude. Etortzeko esan zidaten, sesio hauek lagunduko zidatela, eta hemen nago. Baina nereak ez du konponbiderik.

EMAKUME 2-

Zertarako etortzen zara orduan?

EMAKUME 1-

Entzun egiten didalako?

EMAKUME 2-

A.

EMAKUME 1-

Ez da erraza.

EMAKUME 2-

Ez.

EMAKUME 1-

Nik... beno, nik beti nirera egiten dut, eta badakizu, zaila da beti berera egiten duena...

EMAKUME 2-

Ya...

EMAKUME 1-

Aspertu zaitut zu ere...

EMAKUME 2-

Ez, ez...

EMAKUME 1-

Telefonoari begira zaude.

EMAKUME 2-

Baina entzuten zaitut...

EMAKUME 1-

Horrela ez du balio.

EMAKUME 1en telefonoetako batek joko du berriro. Aparte daukanari begiratuko dio

itxaropenez. Ez da hura. Beste bat da. Hura lokalizatu eta erantzun egingo du.

EMAKUME 1-

Bai, nor da? (...) Ez, eskerrik asko. Ez zait interesatzen. (...) Bai, hiru linea. Bai. Badakit (...) Ez, estimatzen dizut. Horrela nahi dut. Bai, ez, (...) laugarrena beste konpainia batekin. Ez. Ez dut ofertarik nahi. Ez. Eskerrik asko. Zerbait behar izan ezkerro, deituko dizuet neuk.

EMAKUME 2-

Bezero estimatua izango zara...

EMAKUME 1-

Zure txanda da.

EMAKUME 2-

Zer?

EMAKUME 1-

Konsultan. Zure txanda dela. Irten da aurrekoa.

EMAKUME 2 zutitu egingo da. Telefonoa ahaztuko du mahai gainean.

EMAKUME 1k esan egin beharrean, telefonoa hartu eta haren zenbakia berean apuntatzen ikusiko dugu.

Segituan itzuliko da EMAKUME 2. Haserre.

EMAKUME 2-

Buru alu hau.

EMAKUME 1-

Ez dizu inork deitu: mezuren bat bai. Iritsi da bakarren bat. Nola nahi ere, ze kontsulta laburra, ezta? Azkar bukatu duzu!

EMAKUME 2-

Amarekin itzultzeko esan dit. Alfer-alferrik etorri naiz. Zure txanda da.

EMAKUME 2 badoa telefonoz hizketan.

EMAKUME lek telefonoa hartu, eta deitu egingo du.

EMAKUME 1-

Behin dei bat jaso nuen. Emakume batena. Ez nion izena jaso. 'Etxean nago. Balkoitik salto egitera noa. Esan egin nahi nizun'. 'Zaude', esan nion. 'Zu zara nire lagunik onena' esan zidan. 'Horregatik deitu dizut'. 'Nire lagunik onena' errepikatu zidan. 'Non zaude?' galdetu nion. 'Zaude', erregutu. Alferrik. Saiatu nintzen telefono zenbaki ezezagun hartara deitzen. Erantzunik ez. Deitu nuen larrialdietara. Kontatu nien. Non zegoen... Eta nik ez nekien. Ez nor zen, ez non zegoen, ez beste ezer... (...) Egunero deitu dut harrezkero zenbaki hartara. Egunero deitzen dut larrialdietara ea berririk ba ote duten. Ezinezkoa da gorpu bat hain erraz desagertzea. Eta egunero ikusten dut, espaloian, lehertuta, eta telefonoa balkoian joka. Alferrik joka. Eta ez dakit nori deitu. (...) Ez dut itxaropena galdu. Litekeena da azken orduan iritzia aldatu izana. Igual deituko dit berriro... Ez al zaizu iruditzen? Horregatik nahi dut zenbaki hura beti libre. Badaezpada. Ulertzen? (...) Zeuk esan didazu: ezin zara bizi telefonoak noiz joko, eta jotzen badu beldurtuta, eta jotzen ez badu beldurtuago. Eta erantzuteko beldurrez, eta erantzun ezean, beldurrez. (...) Beharbada mezu hau entzuten duzunerako ni ere ez naiz hemen egongo. Ez naiz inon egongo igual. Esan egin nahi nizun. Lastima okupatua egotea...

Gustorago esango nizun zuzenean. Baina esan
dizut, hala ere. Zu zara nire lagunik onena.